


UP TO DATE (AURKEZPENA):

AUTONOMIA



MOTIBAZIOA




HEZKUNTZA BERRIAREN HASIERA!!!

Ane Aizpuru, Eider Becerril, Arene Ahumaran eta Irati García

Gaur egun, ikasleen %44a akademitara joaten da ikasketentzako laguntza jasotzeko. Ikasle batzuek matematika klaseak jasotzen dituzte, beste batzuek ingeles klaseak, eta horrela ikasgai gehienekin.

Hala eta guztiz ere, badirudi eskola kanpoko laguntza hau ez dela guztiz eraginkorra; izan ere, Espainia Europar Batasunaren bigarren herrialdea da eskolaren uzte goiztiarraren zerrendan. Gizonen artean, %20'2ak uzten ditu ikasketak DBH bukatu baino lehen, eta emakumeen artean %11ak.

Tamalez, hau hasiera baino ez da, batxilergora heltzen direnetatik ia erdiak ez baititu ikasketa hauek amaitzen, eta unibertsitarioen ikasketen uztea ere %50 ingurukoa baita.



<https://www.isabelmenendez.com/escuela/fracaso.pdf>

Nola izan daiteke irakasle ondo prestatuak eta hezkuntza-maila ona izanda herrialdean porrot-tasa hain handia izatea? Arrazoiak ugariak dira. Alde batetik, ikasleek ikasteari ez diote zentzurik ikusten; hau da, ez dakite ikasitakoa zertarako izango zaien erabilgarria etorkizunean. Bestetik, ikasle askok ez dute klaseen erritmoa jarraitzen; ondorioz, nahiz eta asko ikasi, ez dute emaitza onik lortzen, motibazioa guztiz galduz eta bukaezinezko begizta batean sartuz, zeinetatik bakarrik ikasketak utzita irtetea lortzen duten.

Up to Date-ek gazteen esperantza izatea du helburu, ikasketak uztea ez dela irtenbide bakarra erakutsiz. Horretarako, existitzen diren ikasketa metodo ugarien artean, aplikazio honek eraginkorrenak aukeratu eta garatu ditu ikasle bakoitzaren beharretara egokitu daitezten.



Aplikazioak eskaintzen dituen zerbitzu guztien artean, irakasgai desberdinetako (historia, fisika...) bideoak eta ariketa mota ezberdinak aurki daitezke batez ere, zeintzuk ikaslearen mailara gero eta gehiago egokituko diren ikasleak aplikazioaren ariketekin praktikatzeko duen heinean.

Alde batetik, bideoak ikasketetara zuzenduak egongo dira; hau da, eskolan edo institutuan ulertu ez den materia ulertzeko eta klaseen erritmoa jarraitu ahal izateko estresatu gabe. Bestetik, bideoek motibazioa sustatzea eta materiaren erabilera praktikoa gaur eguneko erakustea izango dute helburu.



Ariketak ere gaur eguneko erabilera praktikora zuzenduak daude, eta bakoitzaren bukaeran haren azalpena agertuko da, ikasleak ideia ondo ainguratzeko. Era berean, ikasleak haien artean praktikatzeko eta zalantzak argitzeko aukera izango dute ariketa kolektiboen bitartez, hala nola, Quizizz-en bidez. Bestalde, ikasgai bakoitzeko gehien galdetzen diren zalantzak irakasle batek azalduko ditu zuzeneko batean. Egunean irakasgai bakoitzeko **hobei** minutu inguruko zuzeneko bat egingo da: erdia goizean izango dira (11etan) eta beste erdia arratsaldean (17etan), eta bakoitzean irakasgai horretako zalantza bi azalduko dira, bat bigarren hezkuntzako eta bat batxilergoko. Halaber, zuzeneko bideoa konektatzeko aukera izan ez duten ikasleek, geroago ikusteko aukera izango dute; izan ere, bideoa eskuragarria egongo da zazpi egunetan zehar.

Ikasleak haren etxetik ikasi ahal izango du, *Up to Date* aplikazio/web orria baita. Behar izango duen bakarra hari emango zaion klabea da. Honekin, nahi duen dispositibo elektronikorekin konektatu ahal izango da, nahi duen tokian eta orduan.

Enpresak irakasle formatuak izango ditu; batez ere, unibertsitatea duela gutxi bukatu dutenak. Estrategia honen zergatia hurrengoa da: ikasketak bukatu berri duten gazteek prestakuntza modernoa dute, eta, duela gutxi ikasmahaian egon direnez, badakite zeintzuk diren metodo eraginkorrenak ikasleak metodoak errazago uler ditzan. Hitz bitan esanda, ikasleak esku onetan egongo dira.

Gainera, *Up to Date* eskaintzen dituen deskontuen ondorioz, ikasgai bat baino gehiagotan suskribatzea akademia bat baino gehiagora joatea baino merkeagoa da. Alegia, prezio ekonomikoago baten truke kalitatezko zerbitzu bat eskainiko da.



Laburbilduz, metodologia honen bidez, ikasleek haien arazoekin eta interes faltarekin bukatu ez ezik, ikastearen alde ona eta interesgarria ere aurkituko dute. Ondorioz, esan daiteke *Up to Daten* helburua ikasleek ikasketen inguruan duten ikus-puntua aldatzea dela. Hemendik aurrera, ikastea ez da zigorra

izango, baizik eta norberak gainditu nahi duen eguneko erronka, etorkizunean aurkeztuko diren egoera guztietarako prest egoteko.